

KALE INKESTA

Deskribapena: Kike unibertsitate kanpoaldean kale inkesta egiten ageri da gazteen artean.

Kike: “Non ikusten duzu zure burua lanian hemendik hogeita bost urteta eta zein hizkuntzatan?”

Lehenengo mutila: “Bueno hemendik hogeita bost urtea ez dakit segikoeten baina hemendik urte batzuta behintzat pelota dedikatu nahi nuke eta bueno pelota nahiko mundu euskaldune da baino ez erabat.”

Lehenengo bikoteko neska: “Hemendikan hogeita bost urteta ba espero dot Euskal Herrin lanen egotea...”

Bigarren bikoteko lehenengo neska: “Arkitekturarekin zerikusia duen zerbaitetan.”

Lehenengo neska: “Ba ni pedagogian eta gazteleraz.”

Bigarren neska: “Euskeraz ahal den gehiena sustatu eta ingelesez.”

Hirugarren bikoteko lehenengo neska: “Ba ikaskuntzan edo horrela. Eta edo erderaz edo frantsesez.”

Bigarren bikoteko bigarren neska: “Kanpora irten bagara ba agian ingelesez edo eta hemendik bagaude ba euskeraz saiatuko gara.”

Lehenengo bikoteko mutila: “Ahal bada Euskal Herrin eta euskeraz bestela ez gea moldatzen eta...”

Laugarren bikoteko neska: “Hemen inguruko enpresa baten ikusiko nuke lana ba proiektun baten edo hola, eta ahal baldin bada euskeraz, eta beste hizkuntzen bat izanez geo, ba kanpoan, Kanada ingurun edo ikusiko nuke, eta ingelesez.”

Laugarren bikoteko mutila: “Gustoa hemen ingo nuke lana, euskeraz eta hola baino...”

Hirugarren neska: “Ba ez dakit, haber ni oain ai naiz gazteleraz iten “antropología social” baino ez dakit...”

Laugarren bikoteko mutila: “Errexena ba ingelesez, nola txikitatikan e gehien bat hoi eakutsi diguten ba...”

Hirugarren neska: “Ba euskeraz, edo erderaz, edo igual juten naiz Alemania, edo ez dakit noa jungo naizen...”

Bigarren mutila: “Gizarte hezitzaile moduan edo gaztelekun, edo ludoteka, edo edozein lekutan eta bueno, tokian tokiko hizkuntzan, euskeraz edo kanpotarrak badira ba ahal bada ingelesez, marokiarraz edo edozein hizkuntzatan.”

Kike: “Askok hemen eta euskeraz egin nahiko lukete lana baina badira hala nahi dutelako edo egoerak bultzatuta ingelesez egingo dutela uste dutenak, baita gaztelaniaz edo frantsesez. Etorkizuna eleanitza ikusten da!”